

## TXOTXONGILOAK

### Txotxongiloak eta gatazkak

Gatazka batean nahastutako alderdien jarrera oso aurkakoa eta tematia denean, oso zaila izaten da irtenbide bat aurkitzea. Kasu horietan, irudimena erabiltzea ideia ona da; gatazka rol-jokoen, txotxongiloen edo beste metodo batzuen bidez irudika daiteke, alderdiak arazotik zertxobait aldendu eta hura hobeto azter dezaten.

Gatazkak aztertzeko sarritan erabiltzen den metodo bat antzeppenarena da; antzeppenaren bidez, irtenbideak bilatzen eta gatazkak konpontzen ikas daiteke.

Txotxongiloak ezin hobeak dira antzeppenarako; antzezlan baten antza dute, eta haurrak "itxurak egiten" ari direnez, ez die beldurrik ematen beren gatazkak antzeztea.

Txotxongilo gatazkatsuak. Txotxongiloak benetako gatazka bat antzezteko erabil daitezke.

Gatazka non antzeztu: etxean, gelan, parkean...

Elkarrizketaren lehenengo esaldiak, adibidez:

- "Liburua kendu didazu".
- "Zer diozu? Liburua nirea da".

Sen ona eta irudimen pixka bat erabiliz, gatazka garatzen joango da eta, azkenean, norbaitek erabaki bat hartu beharko du. Txotxongiloak ikusleei "Zer egin dezaket?" galdetuko die, eta taldea irtenbideak aurkitzen saiatuko da. Irtenbideak aurkitzeko zenbait modu daude.

Haurrak hiru edo lau pertsonako taldeetan banatuko dira, gatazka eztabaidatzeko.

Hurrek "Ideia-jasa" izeneko metodoarekin lan egingo dute.

Ebaluazioan galdera hauek egin ditzakegu: "Zein zen arazoa?", "Zer gertatu zen zehazki?", "Nola erreakzionatu zuen alderdi bakoitzak?".

Eztabaidaren ondoren, irtenbideei buruz hitz egin dezakegu. Haur bakoitzak irtenbide bat aukeratuko du, eta txotxongiloen bidez antzeztuko du.

Txotxongiloek esker gatazka "kanpotik" azter daiteke, eta irtenbide desberdinak proposatu. Sarritan, hurrek beren bizitzako gatazkak antzeztuko dituzte.

## **Txotxongiloak eta sentimenduak.**

Haur txikiek txotxongiloekin panpinak izango balira bezala jolasten dute. Rolak eta sentimenduak antzezteko erabiltzen dituzte, eta elkarrekin harremanak izateko.

Txotxongiloekin jolasterakoan, esperientziak eta sentimenduak irudikatzeko aukera dute.

Hurrei beren esperientziak gogorarazten dizkieten liburuak dira txotxongiloen antzezpenetarako egokienak.